



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

## BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK BISITA GIDAUEN “BATZARRETIK BATZARRERA” PROGRAMARI HELDU DEUTSIE BARRIRO, BERE EGOITZAK EZAGUTZERA EMOTEKO

- Astelehenatik, herritarrek izena emon daikie Bilboko administrazio-egoitza urten eta tradizioz eta historiaz betetako espazio horreei balioa emoteko Gernikako, Abellanedako eta Gerediagako Batzar Etxeetara helduko diran doako ibilbide gidauetan.
- Bisitak hiru domekatan programau dira: maiatzaren 29an (Abellaneda), bagilaren 12an (Gernika) eta bagilaren 19an (Gerediaga).

(Bilbon, 2022ko maiatzaren 13an). Pandemiaren okerrenaren ostean, Bizkaiko Batzar Nagusiek BATZARRETIK BATZARRERA bisita-programeari barriro ekitea erabagi dabe. Programearen lehenengo edizioa 2019an egin zan. Ekimen kultural horren bidez, Bizkaiko parlamentuak parlamentarismoak lurraldean dauen iragana eta oraina zabaltzea dau helburu, bere hiru egoitza historikoetara (Gernikako, Abellanedako eta Gerediagako Batzar Etxeetara) egingo diran ibilbide gidatuen bidez.

Proiektuaren helburua Bizkaiko herritarrei Bizkaiko Batzar Nagusien historia, bilakaerea, egitekoak eta egungo errealitatea ezagutarazotea da, Bilboko administrazio egoitzan (Hurtado de Amézaga kalea, 6) hasi eta egun Bakotxean Batzar Nagusien egoitzetako batean amaituko dan ibilbidearen bidez. *“Erakundea herritarrei zabalduko deutsegu, bertatik bertara ezagutu daien Bizkaiko Batzar Nagusiek gure gizartean daukien pisua eta garrantzia”*, nabarmendu dau Ana Otadui Batzar Nagusietako lehendakariak ekimenaren aurkezpenean.

Bisitak Bizkaiko herritarrei foru erakundea zabaltzeko proiektu globalagoaren parte dira, Europako zaharrenetako dan parlamentu-erakundeari balioa emoteko. Izan be, politikearen, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren ikuspegietatik gaur egun oraindino aktibo garrantzitsua da Bizkaiko gizartearentzat, bertan erabagi garrantzitsuak hartzen jarraitzen dalako. Aste honeetan Ermuan dagoen erakusketa ibiltariak be idea hori azpimarratzen dau.

BATZARRETIK BATZARRERA ekimenaren bigarren edizioa hiru domekatan egingo da. Programautako bisitek autobusez urtengo dabe Bilbotik, Batzar Nagusien egoitza administratiboa ezagutu ostean, eta helmuga izango dabe Abellanedan maiatzaren 29an, Gernikan bagilaren 12an, eta Gerediagan bagilaren 19an. Hiru leku horreek



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

gizaldietan zehar euren jatorrizko eginkizunari eutsi deusie: herritarren ordezkarien bilgune izatea. Izan be, Batzar Nagusien egoitza ofizialean, Gernikako Batzar Etxean, oraindino osoko batzar arruntak eta kontrolekoak egiten dira, baita foru parlamentuaren ekitaldi instituzional nagusiak be. Egoitza horretatik 100.000 bisitari baino gehiago pasetan dira urtean (2019ko datuak). Beste alde batetik, Gerediagako eta Abellanedako egoitzak urteko saioen-aldia edegiten edo ixten daberen osoko batzarretarako gordetzen dira.

Gernikako Arbolearen ondoan Batzar Nagusien jatorrian sakonduko da, bai eta haretx sagraduaren eta zina egiteko baseleizearen inguruan egiten ziran hasierako bileretan. Era berean, eraikin neoklasikoa aztertuko da, eta gaur egun eraikinak beteten dituan funtzinoak eta egoitzan dagozan artelanik esanguratsuenak be bai; artelanen artean nabarmentzen da osoko batzarren aretoan leku nagusian dagoan Francisco de Mendietaren “El Besamanos” margolan ezaguna, hain zuzen be Europako artean emakumeen lehen erretratu kolektibo lez hartzen dana.

Gerediagara egingo dan bisitan Durangaldeko Batzarren berezitasunetan sakonduko da. Zina egiteko Gerediagako San Salvador eta San Klemente baseleiza ezagutzeko aukera parebakoa izango da; izan be, jentearentzat itxita egon ohi da. Horren aurrean, borobilean jarritako hamabi harri handiko moltsoa dago. Horreetako bakotxak Durangoko Merindadeko eleizateen ordezkari lez joaten ziran fededunen eserleku funtzinoa beteten eban.

Azkenik, Abellanedan, monumentu moltsoa osatzen daberen eraikin historikoak ezagutzeko aukera izango dau bisitariak (Batzar Etxea, Korrejidorearen Etxea, Batzarkideen ostatua eta Aingeru Zaindariaren baseliza), guztiak be ezinbestekoak Enkarterriko historia ezagutzeko. Enkarterriko parlamentuaren sorreratik abiatuta, lehenengo Batzar Nagusiak egin ziranetik, Enkarterriko foru zaharrak 1394an jasoten dauen moduan, Aro Modernora iritsiko gara.

## IZEN-EMOTEA ETA ORDUTEGIAK

Interesdunek 94 650 44 88/94 610 48 15 telefono-zenbakian, [enkarterrimuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkarterrimuseoa@bizkaia.eus) helbide elektronikoan eta [https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/otrasActividades\\_detalle.asp?idNoticia=139&idsubmenu=1&offset=1&pagDesde=12](https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/otrasActividades_detalle.asp?idNoticia=139&idsubmenu=1&offset=1&pagDesde=12). helbidean emon daikie izena. Talde bi ezarriko dira hizkuntzaren arabera (euskerea eta gaztelania), ordutegi honeekaz:

- Euskeraz, 9:30ean.
- Gaztelaniaz, 9:45ean.

Alkargunea Bizkaiko Batzar Nagusiek Bilbon daukien egoitza izango da (Hurtado Amezaga etorbidea 6). Ibilbidea 13:30ean amaituko da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA RETOMAN “BATZARRETIK BATZARRERA”, UN PROGRAMA DE VISITAS GUIADAS PARA DAR A CONOCER SUS SEDES PARLAMENTARIAS**

- La ciudadanía podrá apuntarse desde el lunes a unas rutas guiadas y gratuitas en autobús que partirán de la sede administrativa de Bilbao y alcanzarán las Casas de Juntas de Gernika, Abellaneda y Gerediaga para poner en valor estos espacios llenos de tradición e historia.
- Las visitas se han programado durante tres domingos: 29 de mayo (Abellaneda), 12 de junio (Gernika) y 19 de junio (Gerediaga).

(Bilbao, a 13 de mayo de 2022). Superado lo peor de la pandemia, las Juntas Generales de Bizkaia han decidido retomar su programa de visitas BATZARRETIK BATZARRERA, cuya primera edición se celebró en el año 2019. Mediante esta iniciativa cultural, el Parlamento de Bizkaia busca difundir el pasado y presente del parlamentarismo en el territorio, a través de una ruta guiada a sus tres sedes históricas: las Casas de Juntas de Gernika, Abellaneda y Gerediaga.

El proyecto tiene como objetivo dar a conocer a la ciudadanía de Bizkaia la historia, evolución, funciones y realidad actual de las Juntas Generales de Bizkaia, por medio de un recorrido que comienza en la sede administrativa de Bilbao (C/Hurtado de Amézaga, 6) y termina, durante tres jornadas diferentes, en una de sus sedes parlamentarias. “Abrimos la institución a la ciudadanía para que conozcan de primera mano sus funciones actuales y el peso y la importancia que la asamblea vizcaína tiene en nuestra sociedad”, ha destacado la presidenta de Juntas Generales, Ana Otadui, en la presentación de esta iniciativa.

Las visitas forman parte de un proyecto más global de apertura de la institución foral a la ciudadanía de Bizkaia, para poner en valor una de las instituciones parlamentarias más antiguas de Europa, que hoy, todavía, es un activo importante para la sociedad vizcaína desde el punto de vista político, social, económico y cultural, ya que se siguen tomando importantes decisiones en su seno. Una exposición itinerante que está recorriendo el territorio y que se encuentra durante estas semanas en Ermua, incide en esta idea.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La segunda edición de BATZARRETIK BATZARRERA se desarrollará durante tres domingos. Las visitas programadas, que partirán de Bilbao en autobús tras conocer la sede administrativa de las Juntas Generales, tendrán como destino el 29 de mayo, Abellaneda; el 12 de junio, Gernika; y el 19 de junio, Gerediaga. Tres lugares que han mantenido durante siglos su primitiva función: servir de lugar de reunión de las y los representantes de la ciudadanía. Y es que en su sede oficial, la Casa de Juntas de Gernika, todavía se celebran los plenos ordinarios y de control, y los principales actos institucionales de la Cámara foral. Por esta sede pasan más de 100.000 visitantes al año (datos de 2019). Por su parte, Gerediaga y Abellaneda se reservan para los plenos que abren o cierran el periodo anual de sesiones.

Junto al Árbol de Gernika se profundizará en el origen de las Juntas Generales, sus primitivas reuniones en torno al roble sagrado y la ermita juradera. Se analizará el edificio neoclásico, sus funciones actuales y las obras de arte más significativas que alberga la sede, entre ellas, el famoso cuadro de “El Besamanos”, de Francisco de Mendieta, que preside el salón de plenos y que ha sido considerado el primer retrato colectivo de mujeres del arte europeo.

En la visita a Gerediaga, quien asista se adentrará en las singularidades de las Juntas del Duranguesado como lugar de reunión. Será una oportunidad para conocer la Ermita juradera de San Salvador y San Clemente de Gerediaga, habitualmente cerrada al público, frente a la cual se asienta un conjunto de doce grandes piedras dispuestas en círculo. Cada una de ellas ejercía la función de asiento de los fieles que acudían en representación de las anteiglesias de la Merindad de Durango.

Por último, en Abellaneda, el visitante podrá conocer los diferentes edificios históricos que conforman este conjunto monumental (la Casa de Juntas, la Casa del Corregidor, la Posada de los junteros/as y la ermita del Ángel Custodio), indispensables para conocer la historia de Enkarterri. Partiendo del origen del parlamento encartado, desde la celebración de sus primeras Juntas Generales, tal y como recoge el fuero viejo de las Encartaciones en 1394, se llegará a la Edad Moderna.

## **INSCRIPCIONES Y HORARIOS**

Las personas interesadas podrán apuntarse a partir del lunes en los teléfonos 94 650 44 88 / 94 610 48 15, en el correo electrónico [enkartermuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkartermuseoa@bizkaia.eus) o en [https://www.enkartermuseoa.eus/home/otrasActividades\\_detalle.asp?idNoticia=139&idsubmenu=1&offset=1&pagDesde=12](https://www.enkartermuseoa.eus/home/otrasActividades_detalle.asp?idNoticia=139&idsubmenu=1&offset=1&pagDesde=12). Se establecerán dos grupos en función del idioma (euskera y castellano) con los siguientes horarios:

- Euskera, a las 9:30.
- Castellano, a las 9:45.

El punto de encuentro será la sede de las Juntas Generales de Bizkaia. en Bilbao (Avda. /Hurtado de Amezaga 6). El recorrido concluirá a las 13:30 horas.